

FAUNA PUBLIKOA

**“Eusquera (sic) batua
asmakizun hutsa da”**

**Jaime Ignacio del Burgo, historialaria
(Diario de Navarra)**

#INVENT



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Gurpila ere asmakizuna da eta Jaime Ignacio del Burgo 2015era arte eduki zuen kotxe ofizialak ez zuen zirkulatuko hura gabe. Asmakizunek ezaugarri hori baitute: benetakoak bihurtzen direla, hain zuzen ere asmatuak diren momentuan. Horrenbestez, beraz, baliogabetu dugu *factotum* navarristak euskara batuaren kontra abuztuaren hondarrean tribunaratu duen argudio nagusia.

(“Bai zutabe erraza aste honetakoa”, esan diot nire buruari aharrausi egin ondoren; eta maketzaileari deitu diot galdetzeko ea goiko paragrafo honen azpian geratu den zuriunean sartzeko moduko publizitaterik ba ote dagoen. Esan dit ezetz. Kaka. Irakurlea entretenitzeko beste zerbaiten bila hasi behar izan dut).

Asmakizunetz ari garenez, del Burgoren doktore-tesian aipatzen da 1549ko dokumentu bat, zeinean Nafarroako Gorteek onartzen duten sosa jartzea Karlos V. Gaztelako erregearen gerrak pagatzeko, “*en defensión de la fe y bien común de la* (adi honi) *spanidad*”. Gorri-separatistek golak sartzeko gogoz zelairatu berri zen del Burgo esaldi horretatik tiraka ondorioztatu zuen nafarrek aspaldidanik maite zutela Espainiako monarkia eta hark ordezkatzzen zuen “komunitate espiritual eta politikoa”. Duela 50 urte baino gehiago, erregimenak txalo jo zion: navarrismoaren hasiera zen, eskuin hegaletik filigranak egiten.

Beharrik Santi Leoné historialaria zegoela VAR-arekin: 2005ean del Burgoren tanto hura baliogabetu zuen, jatorrizko dokumentuan “*spanidad*” ordez “*christiandad*” jarzzen duela demostratuz –pikutara Nafarroa foral eta espainiarraren justifikazio ustez historikoetako bat–.

Del Burgoren hura, ordea, ez zen asmakizuna bakarrik. Faltsua zen. Eta faltsua izatea puskaz okerragoa da asmatua izatea baino. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



HARA!
HELDU DA
HAZKUNDE NAZIONALAK
AGINDUTAKO IRAKASLE
BERRIA...!

